

proiektuarekiko hurbilketa eta baterakortasuna bilatu beharrean, urruntasuna eta dibergentzia bilatzen zuela. Zoritxarrez, euskal egunkariaren inguruan gertatu dena arazo zabalago eta larriago baten sintoma eta adierazgarri da: hots, euskal gizartearen eraketa sozio-politikoarena, erakunde zibiko-herritarren eta erakunde publikoen arteko artikulazioarena... Azken batez, Euskal Herriarentzako demokrazi ereduarena.

Dena dela, gorabehera triste eta gogor guztion artean bada ere, udazken pozgarria izango da aurtengo hau euskaldun guztiontzat, *Euskaldunon EGUNKARIA* eskuetan izango dugunean. Azken batez, euskal egunkariaren urtea deklaratu du aurtengo hau Euskal Herri euskaldunaren historiak.

Aldizkari bat: *Herria-2000-Eliza*

«Euskara eta Euskal Kultura» izeneko zenbaki monografikoa argitaratu berria du *Herria-2000-Eliza* aldizkariak (110. zenbakia). Kristauen arteko eritzi eta gogoeta-aldizkaria da *Herria-2000-Eliza*. Ez da lehen aldia hone-lako zenbaki monografikoa egiten duela aldizkari honek.

Erdibana edo, euskaraz eta gaztelaniaz dago idatzita zenbaki hau. Alderdi sozio-politikoetik eta teologiko-pastoraletik begiratuta, hainbat artikulua interesgarri aurki daitezke. Israelgo Kultura eta Hezkuntzako Ministraritzako Zuzendari-ordea den Arie Shoval-ekin elkar hizketan hebraieraren pizkundearen esperientzia erakusten da; beste elkar hizketa batetan, berriz, Txillidaren hitzezko testigutza jasotzen da: «El euskera es decisivo en la identidad de este pueblo».

Bereziki deigarria gertatu zaigu atariko «Carta a un bilingüista» editoriala; estilo oso zirikatzailez agertzen du demokraziaren izenean edo, elebitasuna defendatzen duen erdaldunaren kontradikzioa: «¿Te has percatado que aquí los únicos bilingües son los euskaldunes?»

Liburu bat: *Euskaldunaren hizkuntz eskubideak*

Gidaliburu deritza; eskuliburu izan zitekeen, neurritz txikiagoa izan balitz. Izan ere, euskaldunak etengabe eskuetan erabiliko duen liburua izan nahi bait du.

Kaleratu berria du EKBk liburu hau, aski originala euskal bibliografian; eta seguruenik erdarazkoetan ere bai, euskaldunona bezalako hizkuntz egoerari, juridikoari eta sozialari erantzuten bait dio liburu honek.

Herritarrak bere bizitzako une eta situazio ezberdinetan, bereziki Administrazio Publikoaren aurrean euskara erabiltzeko duen eskubidea zein den eta horretaz nola balia daitekeen erakustera dator liburu hau. Bizitzako une juridiko-administratibo horietako bakoitza banan banan azaltzen du. Gainera Administrazio Publikoaren aurrean bete beharreko halako formulario ezberdinen eredu batzuk ematen ditu, erabiltzaileari bideak ireki eta errazteko.

Testu nagusia, lehen partea, euskaraz dago; hizki xeheagoez horren itzulpena ematen du bigarren zatian, lehenik frantsesez eta gero gaztelaniaz. (Badirudi inprimaketa okerren bat dagoela hemen, liburuaren azaleko tituluan bigarren tokian gaztelaniazkoa bait dago, eta hirugarrenean frantsesa).

Zazpi legegizonek hartu dute parte liburua egiten. Ez da inola ere erraza gertatu nonbait horren lantzea; eta EKBren aspalditxoko asmoa zen hau ez da oraintxe arte bete. Prezio oso apalean zabalkunde handia emateko asmoa du EKBk, euskara erabiltzeko eskubideetaz kezkatu dauden eta horietaz baliatu nahi duten euskal herritar guztien eskuetan jartzekotan.

Alferrikakoa izango da liburu hau edo beste antzeko edozein kaleratu eta zabaltzea, inoren jakinmina asetzeko bakarrik izango bada; herritar bakoitzak eta guztiok geure hizkuntzaren defentsa geure eskuetan hartzeko, eta denon ekintzaz eta erabileraz euskararen ezagutza eta erabilera normaltzeko indar sozial zabala sendotzeko tresna izan nahi du liburuska honek. Horregatik EKBk ere ez du nahikoa liburua kaleratzearekin edo hori publikizatzearekin; bestelako ekintza sozial iraunkorra eskatuko dio liburuarik berak.

EK2000